# Xedapen Orokorrak

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**

**3499**

AGINDUA, 2010eko ekainaren 1ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 9. artikuluaren 2. idatz-zatiaren a), b) eta d) ataletako zenbatekoak aldatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 9.2 artikuluak kontratazio-espedienteak izapidetzeko eskumenen banaketa ezartzen du Kontratazio Batzorde Nagusiaren eta Administrazio honetako Sailen eta Erakunde Autonomoen kontratazio-organoei laguntzen dieten Kontratazio Mahaien artean, administrazio-kontratu motagatiko zenbatekoen arabera.

Banaketa horren bitartez, kontratazioetan beharrezkoa den arintasuna lortu nahi zen, eta orobat izapidetzearen espezializazioa indartu eta legaltasuna betetzen dela bermatu.

Era berean, delako Dekretuak artikulu horretan bertan ezartzen du a), b), d) eta e) ataletako zenbatekoak Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren aginduz alda daitezkeela, horren eragina jasango luketen Sailen iritzia entzunda, arrazoi teknikoek edo ekonomikoek kudeaketan berehalakotasunaren eta espezializazioaren printzipioen arteko oreka mantendu dadin halakorik gomendatzen dutenean.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuak, Lehendakariarenak, Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitzen dio kontratazioaren arloko egitekoa, besteak beste.

Denbora igaro da Dekretu hori indarrean sartu zenetik, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak zenbait aldaketa tekniko ekarri ditu; horren guztiaren ondorioz, hautsi da Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari atxikia zaion Kontratazio Batzorde Nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan existitzen diren Kontratazio Mahaien eskumenen arteko oreka.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA**

**3499**

ORDEN de 1 de junio de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se modifican las cuantías de los apartados a), b) y d) del apartado 2 del artículo 9 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El artículo 9.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece una distribución de competencias para la tramitación de expedientes de contratación entre la Comisión Central de Contratación y las Mesas de Contratación que asisten a los diferentes órganos de contratación de los Departamentos y Organismos Autónomos de esta Administración, en función de cuantías por tipo de contrato administrativo.

Tal distribución buscaba la convergencia entre la necesaria agilidad en las contrataciones, el refuerzo de la especialización en la tramitación y la garantía del cumplimiento de la legalidad.

Al mismo tiempo, y en este mismo artículo, el propio Decreto establece la previsión de que las cuantías señaladas en los apartados a), b), d) y e) puedan ser modificadas por Orden del Consejero de Hacienda y Administración Pública, habiendo sido oídos los Departamentos afectados, cuando razones de índole técnica o económica lo aconsejen en orden a mantener el equilibrio necesario entre los principios de inmediatez y especialización en la gestión.

Por su parte, el Decreto 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de modificación del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, atribuye al Departamento de Economía y Hacienda, entre otras, la correspondiente al ámbito de la contratación.

El tiempo transcurrido desde la entrada en vigor de dicho Decreto, así como modificaciones técnicas introducidas por la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, en la regulación de los contratos de servicios, han venido a alterar el equilibrio preexistente en la distribución de competencias entre la Comisión Central de Contratación, adscrita a la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Economía y Hacienda, y las diferentes Mesas de Contratación existentes en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Beste alde batetik, administrazio-kontratazziorako zerbitzuen Sail eta Erakunde Autonomoen egiturak finkatu izanak, eta orobat ekainaren 5eko 136/1996 Dekretua indarrean sartu ondoren sortutako Kontratazio Mahaiek bereganatu duten esperientziak behar bezala bermatzen dute egin asmo den eguneratzearen ondorioz beraiek izapidetu beharko lituzketen kontratazio-prozedurek legaltasuna beteko dutela.

Agindu honen bitartez burutu nahi den zenbatekoen aldaketa adierazi berri diren arrazoi zehatzei zor zaie eta, beharrezkoa izanik ere, behin-behinekoa izan daiteke; izan ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak antolamendu juridikoan eragin dituen aldaketa handien ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kontratazio-araudiari buruzko Dekretu berri bat egin beharko baita lehenbailehen, gaur egun indarrean dagoen araudia Lege horren xedapenetara egokitzeko.

Horri guztiari jarraiki, beren egituretan Kontratazio Mahai espezializatuak dituzten Sailen, Erakunde Autonomoen eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen iritzia entzunda, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena eta gainerako aginduzko txostenak eginak direlarik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazioko araubide organikoari buruzko urriaren 30eko 136/2007 Dekretuaren 9.2 artikuluak esleitzen didan ahalmena erabiliz, honako hau

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Zenbatekoen aldaketa.

Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazioko araubide organikoari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 9. artikuluaren 2. idatz-zatiaren a), b) eta d) ataletan zehazten diren zenbatekoak, kontratazio-espedienteak izapidetzeko eskumenak Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari atxikia zaion Kontratazio Batzorde Nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sailetan, Erakunde Autonomoetan eta zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoetan sortutako Kontratazio Mahaien artean banatzen dituztenak. Zenbatekook honela geratzen dira:

1.– a) letran obra-kontratuetarako oro har zehazten den 300.000.000 pezetako zenbatekoa 2.000.000 eurokoa da orain.

2.– a) letran ere Etxebizitza, Herrilanak, Garraioa eta Ingurumena-URA arloetako obra-kontratuetarako zehazten den 500.000.000 pezetako zenbatekoa 3.000.000 eurokoa da orain.

Por otra parte, la consolidación en las estructuras de los Departamentos y Organismos Autónomos de los correspondientes servicios de contratación administrativa, así como la experiencia adquirida por las diferentes Mesas de Contratación creadas a partir de la entrada en vigor del Decreto 136/1996, de 5 de junio, garantizan suficientemente el cumplimiento de la legalidad en los procedimientos de contratación que con la actualización proyectada pasarían a ser tramitados en ellas.

La modificación de cuantías a que se procede por la presente Orden responde a las estrictas razones que se han señalado y, aunque necesaria, puede estar revestida de una cierta interinidad ya que las importantes modificaciones introducidas en el ordenamiento jurídico por la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, van a requerir que se aborde cuanto antes la elaboración de un nuevo Decreto sobre régimen de la contratación en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para adecuar el régimen actualmente vigente a las disposiciones de la citada Ley.

En su virtud, habiendo sido oídos los Departamentos, Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado que cuentan en sus estructuras con Mesas de Contratación especializadas, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa y demás informes preceptivos, haciendo uso de la facultad que me otorga el artículo 9.2 del Decreto 136/2007, de 30 de octubre, sobre régimen orgánico de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DISPONGO:

***Artículo único.***– Modificación de cuantías.

Se modifican las cuantías señaladas en los apartados a), b) y d) del apartado 2 del artículo 9 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen orgánico de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para la distribución de competencias en la tramitación de expedientes de contratación entre la Comisión Central de Contratación, adscrita a la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Economía y Hacienda, y las diferentes Mesas de Contratación creadas en los Departamentos, Organismos Autónomos y Entes públicos de derecho privado de la Administración de la Comunidad Autónoma, que quedarán fijadas como sigue:

1.– La cuantía de 300.000.000 de pesetas señalada en la letra a) para los contratos de obra en general pasa a ser de 2.000.000 de euros.

2.– La cuantía de 500.000.000 de pesetas señalada asimismo en la letra a) para los contratos de obra en los ámbitos de Vivienda, Obras Públicas, Transportes y Medio Ambiente-URA pasa a ser de 3.000.000 de euros.

3.– b) letran zuzkidura-kontratuetarako zehazten den 100.000.000 pezetako zenbatekoa 600.000 eurokoa da orain.

4.– d) letran kontsultoria-, sorospen- eta zerbitzu-kontratuetarako zehazten den 50.000.000 pezetako zenbatekoa 600.000 eurokoa da orain.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.– Agindu hau indarrean sartu aurretik formalizatu diren kontratuen gorabeherak kontratu nagusiaren berri izan duen organo eta zerbitzuak izapidetuko ditu.

2.– Hasiak diren baina agindu hau indarrean sartzen den egunean oraindik esleitzeko dauden kontratazio-espedienteak haien izapidetzea onartu duen organo eta zerbitzuak izapidetuko ditu fase guztietan.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 1a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

3.– La cuantía de 100.000.000 de pesetas señalada en la letra b) para los contratos de suministro pasa a ser de 600.000 euros.

4.– La cuantía de 50.000.000 de pesetas señalada en la letra d) para los contratos de consultoría y asistencia y de servicios pasa a ser de 600.000 euros.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

1.– Las incidencias contractuales relativas a contratos formalizados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Orden, se tramitarán por el órgano y servicio que haya conocido del contrato principal.

2.– Los expedientes de contratación ya iniciados y que a la fecha de entrada en vigor de la presente Orden se encuentren pendientes de adjudicación, serán tramitados en todas sus fases por el órgano y servicio que los haya admitido a trámite.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2010.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.